



Julene
Urzelai
Aramendi

1912-1983

BIDeGILEAK

Egilea:
Xabier Euzkitze



JULENE URZELAI ARAMENDI

(1912-1983)

Mitinlari konkistatzailea

Julene Urzelai Aramendi Azkoitian jaiotzen 1912. urteko ekainaren 16an. Aita Joxe Mari Urzelai zuen, ama Josefa Aramendi. Azkoitia baserri inguru aberatseko herria zen, inon soberakinik izan ez arren. Kaleak, aldiz, abarketagilez josita egoten ziren. Ezker-eskuin, denak *txortan*. Abarketak josten, alegia. Lantegiak ere baziren Azkoitian, XIX. mendearen erdi aldera abian jarriak. Abarketa eta txapel fabriken bitartez txertatu zen industrializazioa. Txapelgintzan aritzen zen Hurtado de Mendoza lantegiak hainbat

herritarri ematen zion lana. Handik urte batzuetara, bertako langile izan zen Julene Urzelai. Abarketagintzak are indar handiagoa zuen, ia herri osoaren lanbide bihurtu zen.

Bi lantegi nabarmentzen ziren: Alberdi y Compañía eta Epelde. 1922. urtean, 6.549 biztanle zituen Azkoitiak. Beharginak, berriz, nekazaritzan zihardutenak zenbaitu gabe, 3.000 inguru. 1.250 lantegietan aritzen ziren, gainerako 1.750ek etxean egiten zuten lan. Azkoitian egindako abar-



Urzelai-Aramendi familia



Julene Urzelai, gazte-gazterik

ketak Argentinan saltzen ziren batez ere. Haraino helarazteko, abarketa konboiak antolatzen zituzten lantegietako buruek. Beste lurralde batzuekin alderaturik, Azkoitiko lantegien mekanizazio maila altua zen oso. Soldatak, aldiz, arrunt apalak. Hala ere, izugarria zen nagusiek langile-riari ezartzen zioten kontrola. Ugazabak Alderdi Integristakoak ziren, eta mehatxuen bidez eskuratzen zuten langileen botoa, Urkiologiren bertso honek garbi adierazten duen moduan.

Iñoiz etortzen bada
eleziyorian
erakusten digute
ejenplo onikan:
Nai badezu aurrera
pabrikari lanikan
ez zaiozu besteri
eman botorikan.

Ez zen botoetara mugatzen jauntxoek beharginetikiko zuten kontrola. Langileen eguneroko bizimoldea zorrotz gainbegiratzen zuten. Esate baterako, erromerietan



Sorterrian lagunekin

helduta dantzatzea ez zuen Elizak bakarrik
debekatzen, baita nagusiek ere. Urkiolegi
bertsolaria zuten bozeramaile zintzo.

Gazterik badijua
erromeriyara,
neska zarrak ondoren
diyaz bereala
partia ekartzera
nagusiyagana

urrengo goizean multa
bost duroko bana.

Horrez gain, Epelde enpresaren jabeak
dirua ematen zien langileei egunero meza-
tara joateagatik. Eliza Katolikoaren kode
moraletara makurtzen ziren langileak
errazago kontrolatzen zituzten, inolaz ere.
Jauntxoek ez zuten matxinorik nahi, zer-
bitzari otzan eta esanekoak baizik.



Abarketagileak lanean



Plaza berria ezker-eskuin abarketagilez josirik egoten zen



Erreka bazterreko etxeak



Azkoitiko barrika famatuak



Urrategiko ermita

AZKOITIA, PILOTARIEN SEHASKA

Aipamen berezia eskatzen du azkoitia-
rren pilotarako zaletasun eta gaitasunak,
urterik emankorrenak geroxeago etorri
baziren ere. Azkoitiak goi mailako pilota-
ri asko eman du. Kopuruari erreparatuz
gero, 1940ko hamarkada izan zen aberatse-
na. Tren geltokian 32 elkartu omen ziren
behin, maleta bana eskuan. Haien guztien
aita ponteko Joxe Mari Urzelai izan zen,
Juleneren aita. Azkoitiak txapeldun han-
di ugari eman du, denetan lehena Urzelai
izan zelarik. Partida historiko asko jokatu
zuen, eta buruz buru pilotaririk hoberena
izan zen 1895 eta 1905 bitarteko hamarka-
dan.

Aitari bi semek jarraitu zioten pilotarako
zaletasunean. Justino, «Urzelai II», goi
mailako atzelaria izan zen. 1905ean jaioa,
17 urterako hasi zen nabarmentzen. Aita-
rekin bikote beldurgarria osatzen zuen, eta
ez ziren nolana hikoak hauei aurre egiten
zietenak ere: Azkoitiko Txikito, Txortena,
Fernandez... 22 urte besterik ez zuela,
esku pilota baztertu behar izan zuen, es-



Goiko-losa, Azkoitiko plazan bertan dagoen ezker-pareta

kuin eskuko hatzak erabat minberatzen
baitzitzaizkion. Erremontean egin zuen
aproba, eta bi urtez Madrilgo Recoletos
pilotalekuan ari izan zen, profesional.
Bi urte horietan eskurik erabili behar ez
izateak mesede egin zion, minberatutako
hatzak sendatu egin zitzaizkion. 1941.
urtean antolatu zuten binakako lehen txap-
elketa nagusia. Txapeldunak Onaindia
eta Urzelai II izan ziren, finalean Iraetako
Txikito eta Gallastegi menpean hartuta!!!
Jose Leon, «Urzelai III», ez zen anaia eta
aitaren mailara iritsi, baina pilotari frango
polita izan zen. Urangarekin bikotea osa-



Urrategiko frontoia



Jorge Oteitza pilotalekuak



Kontsejupe famatua, pilotarako eskolarik onena



Pilotariak ez ezik, pilotagileak ere asko izan dira Azkoitian

tuz, behin baino gehiagotan jokatu zuen Gallastegi handiaren aurka... Eibartarra bakarrik zela. Jose Leonek, eskuz ez ezik, xarez ere jokatu izan zuen. Gerra ostean ezinbestean utzi zuen pilota. Kontzentrazio-esparru batera eraman zuten lehenik, Iñaki anaiarekin batera, eta Ameriketara alde egin zuen gero.

ABERTZALETASUNA ZAINETAN

Garai hartan hainbat familiatan ohi bezala, senide asko izan ziren, zortzi neba-arreba. Joakine, Justino, Ale, Julene, Josebe, Jose Leon, Iñaki eta Emili. Abertzaletasunak pizkunde nabarmena bizi zuen, garai interesgarria zen euskaltasuna bizi zuen edonorentzat, eta Urzelai-Aramenditarrek odolean zeramaten sen hori. Bigarren karlistadak utzitako zauriek min ematen zuten, artean. Kulturalki, nabarmena zen zenbait idazle, hizkuntzalari eta teorikoren ekarria, Arturo Kanpion buru zela, baina Juleneren sendiari adar politikoak gehiago eragiten zion. Sabino Arana hil berria zen.

Gaur egun aldarrikapen sotil bat besterik ez dirudiena, «Euskaldunon aberria



Julene Urzelai, EABren burua, mitina ematen

Euzkadi da» esatea, lurrikara bortitza zen orduan. Iturri horretatik ase arte edan zuten Urzelai-Aramenditarrek. Sabinok haiengan utzitako arrastoaz jabetzeko, aski da seme-alabei jarri zizkieten izenei erreparatzea: Julene, Joakine, Iñaki, Josebe... Julenek 11 urte besterik ez zuen Primo de Riveraren diktadurak 1876ko konstituzioa bertan behera utzi zuenean. CNT sindikatu anarkosindikalista, PCE Alderdi Komunista eta euskal eta kataluniar nazionalismoak legez kanpo utzi zituen, eta euskaltzaleen hainbat ekimen deuseztatu. Diktadura hari II. Errepublikak jarraitu zion.



Euskal emakumeari omenaldia EABk,
Bilbon 1931. urtean. Ezkerrean, Julene Urzelai

MITINLARI

Hemeretzi urte egiterako errejimen politiko arras desberdinak ezagutu eta bizi izan zituen Julenek. Ez, ordea, denborari berez aurrera egin dezan uzten dionaren indiferentziaz, ume-umetatik erraietara ino sartu zizkioten idealak egia bihurtzeko asmo sendoz baizik. Orduantxe hasi zen mitinlari lanetan, 19 urte bete aurretik. Aitak, alaba lan horietan bozkarioz ikusi arren, behin baino gehiagotan egin zizkion ohartarazpenak: «Julene, garai gogorak zetozan. Hala nahi badun, nik ez dinat politikan buru-belarri sartzerik galaraziko, baina ongi pentsa ezan zer egin behar dunan».

Aitaren hitzek ez zuten Juleneren asmorik hoztu. Ez zuen aparteko ikasketarik egin, ez zuen heziketa berezirik izan. Gezurra diot. Izan zuen heziketa oso izan zen berezia, ofiziala ez baina. Emakume Abertzale Batzaren (EAB) baitan hazi eta hezi zen Julene. Primo de Riveraren diktadurak EABren jarduerak eten arren, 1931. urtean indar eta kemen biziz berrekin zioten lanari. Julenek oso gogoan zituen Sabino Aranaren hitzak: «abertzaletasuna emakumeen bihotzera heltzen denean bakarrik egon ahal izango gara garaipenaz ziur».

Beste hainbat emakumerekin batera, gogotsu murgildu zen hainbat eginkizuntan. Ordura arte emakumeek ez zuten boto eskubiderik ere izan. Emakumeen errolda egin beharra zegoen, eta egin zuten. Emaztekiak erizaintzan trebatu zituzten, lan poltsak sortu, mutualitate bat antolatu, langabetu eta presoek lagundu... EABk gizarte eta kulturaren alorrak zituen lan-eremu eta, azken honen barnean, euskararen aldeko ekimenak ardura nagusi. Horiek bideragarri bihurtzeko, ordea, ezinbestekoa zen alor politikoa.

Kuraia, ausardia, batzuentzat aski izan daiteke oholza gainera igo eta ehunka lagun aurrean mintzatzeko. Entzule guztiak



Zestoako Foruen Enparantza mukuratu bete zen Juleneren mitina entzuteko

txundituta uzteko, sorginduta atxikitzeke, beste dohain batzuk behar dira. Julenek bazituen. Norbaiti bururatu zitzaion biltzar txikietan halako prestutasunez hitz egiten zuen neskatiko hark jendaurrerako ere balio zezakeela. Bai asmatu ere! Lehen agerraldia sorterrian bertan egin zuen, Azkoitian. Primo de Riveraren diktadurak herriko Batzokia itxi zuenean, bertako ikurrina erre egin zuten. Haren zati txiki bat berreskuratzea lortu zuten. Hori os-

patzeko, bandera zatitxo bat bedeinkatzeaz gain, jai handi bat antolatu zuten. Ekitaldi hartan mintzatu zen jendaurrean lehen aldiz Julene Urzelai. Aurkezle lana besterik ez zuen egin, baina aski izan zen denak liluraturik, harriturik utz zitzan. Azkoitian esaten duten moduan, «harri eta biribil».

Berehala konturatu ziren horretaz jai hartara joanak ziren buruzagi nagusiak. Ez zen edonorekin ari izan, goi mailako politikari eta hizlariak izan zituen oholtzalagun: Jose Antonio Agirre lehendakaria eta Esteban Urkiaga *Lauaxeta*... Julenek asko ikasi zuen haien ondoan, maisu eta bidelagun paregabeak izan zituen. «Oso modu berezian tratatu eta zaindu izan ninduten», aitortu izan zuen Jelenek berak. Gerorago ezagutu zuen Manuel de Irujo, harekin ere harreman estua izan zuen. Bizi izan zuten guztien oroimenean da oraindik Elizondoko jai handia, sekulako jendetza bildu zuena. Emakume Abertzale Batzak 20 herritako elkarteak bildu zituen. Emakumeek aparteko protagonismoa izan zuten ekitaldi hartan. Agirre lehendakaria ere han zen. Julenek ere hitz egin zuen eta Irujok eman zion amaiera ekitaldiari. Hizlari bikainak hirurak.

MUJERES Y NACIONALISMO VASCO

Génesis y desarrollo de
Emakume Abertzale
Batza. 1906-1936

MERCHEN
UOALDE



Dotorea eta indar handikoa

Emakume Abertzale Batzaren historia, 1906-1936

Iñaki Anasagasti buruzagi jeltzalea Venezuelan sortua da, Caracasen. Han jarri zuten abian Radio Euskadi, irrati klandestino. Iñakik Julene elkarrizketatzeko zoria izan zuen, hil aurretxoan. Artean emakume dotorea zen. Elkarrizketatzailea bera ere txundituta utzi zuen. Hasteko, Juleneren dotoreziak. «Gogoan dut nola heldu zen Pacairigua eraikinera. Zinez dotore jantzia, bere begi urdin zoragarriekin, itxura berezi eta apartekoaz. Hark espia film bat zirudien, kapela loreduna besterik ez zuen falta.»

AITA ESTEFANIAREN BULTZADA

Elkarrizketa mamitsu hartan, Julenek ederki xehatu zituen gaztaroko bizipenak. Lehen urratsetan, EAJren buruzagiek adina edo gehiago bultzatu eta lagundu zioten Loiolako Jesulagunek. «Ekintza proselitistetara joaten jarraitu nahi nuen galdezka etorri zitzaidan Aita Estefania, jesuita. Geroxeago harekin eta beste zenbait jesuitarekin bilera bat egin nuen, eta Euzkadiren alde zerbaitegitera behartuta nengoela esan zidaten. Gainera, baliabide

harrigarriak jarri zituzten nire esku: Loiolako artxibategia, liburutegia eta jakintza guztia.»

Anasagastiren galderei erantzunez, garai hartan burutzen zituzten ekimenei buruzko argibide ugari eman zuen Julenek. «Jose Antonio Agirrerekin hainbat eta hainbat mitinetan hartu nuen parte. Markinan Donato de Ugartetxeak, Biteirik, Agirrek eta laurok hitz egin genuen. Leioa, Arrigorriaga, Bakio eta Morgan elgarretaratze zoragarriak izan ziren, hainbat mitinlarik parte hartu zuelarik: Jesus de Zabala, Altzeta, Jose Antonio Agirre, Enrike de Orueta, Toribio de Beaskoetxea, Alejandro de Gallastegi, Telesforo Montzon, Miren de Lazkano, Karmen de Gamarra, Polixene Trabudua, Libe Altuna, Mercedes de Kareaga, Pilar de Landaburu... Mutrikuko Batzokiaren inaugurazioan jendetza handia bildu zen. Kareagak, Barrenak, Lauaxetak, Agirrek eta nik neuk hitz egin genuen. Eta Arantzazu Barrenak xarmanki errezitatu zuen Luis Jauregiren poema bat, Aizkorriren oinetan.

Gogoangarria izan zen Azpeitian, integrista-tradizionalisten gotorlekuan egindako jaialdia ere. 1932ko ekainaren 12a zela uste dut, Euzko-etxearen inaugurazioa. Emakume eta gaztetxoek banderak bedeinkatu genituen. Tren berezietan eta autobusez mundu bat bildu zen, egundoko jendetza. Hizlari guztiok euskara hutsean aritu ginen: Artetxe, Ernandorena, Arantzadi, Urzelai, Leizaola, Renteria eta Agirre. Berebiziko mitina izan zen, inon egin zen handienetakoa. Uste dut esan daitekeela Azpeitia, ia osorik, euskal nazionalismora bihurtu zela.

Edozein gisaz, oroimenean dudan mitinik bereziena Bilbon bizi izaniko bat da. EABren propaganda batzordeak Euskal Amari omenaldia antolatu zuen, Bizkai Buru Batzarrak babestu zuena. Euskalduna pilotalekua leporaino bete zen, milaka izan ziren mitina kanpotik jarraitu behar izan zutenak, barnean lekurik ez eta. Luis Arana Goiri izan zen buru, Sabinoren anaia. Maria Teresa Zabalak, Polixene Trabuduak, Haydee Agirrek eta nik neuk hitz egin genuen.»





Haydée Agirre, M^a Teresa Zabala, Polixene Trabudua eta Julene Urzelai, Bilboko Euskalduna pilotalekuan (1934-II-05)

Mitin-ekitaldi-inaugurazio festa haietan mezu historiko-proselitistak zabaltzen zituzten batez ere: «EAJren mezua zabaltzen genuen, zuzendaritzak ezarririko ildoaren arabera. Sabino Aranari buruz hitz egiten genuen, euskal abertzaletasunaren sorreraz, gure hizkuntzak eskoletan jasaten

zuen jazarpenaz, aktualitateari lotutako berriez. Gure jarraitzaileei animoak ematen genizkien, eta ekintza jakinetara bultzatu. Hau guztia bozgorailurik gabe. Leku bakan batzuetan hala moduzko batzuk izaten genituen, baina ez zen ohikoa. Asteko mitin bat izaten nuen gutxienez.

Herritarrengana hurbiltzen ginen, konzientziak ernarazi eta jendeari babesa ematen genion. Lan emankorra izan zen, ez dudarik izan».

LEKUKOEN OROITZAPENAK

Ez da erraz-erraza Juleneren mitinak zuzenean entzundako gizon-emakumeen lekukotasunak biltzea. Adin handiaz gain, buru argia behar dute. Alta, Juleneri entzuteko zoria izan zutenen artean, bada oraindik oroimen argiaren eta kontatze-ko grazia ederraren jabe denik. Geno eta Pedro Aldalur neba-arrebak dira. Geno 1918an sortua, Pedro bi urte gazteagoa. Julenez galdezka joan natzaienean, berehala hasi zaizkit hizketan.

Genok ezaupide handia izan zuen Urzelaitarrekin: «Senide guztiekin izan nuen harremana, batzuekin oso estua. Jende ona zen. Politikak sendiak eta lagunarteak bi zati egiten zituen batzuetan, baina ez beti. Gu neska asko ibiltzen ginen elkarrekin. Batzuk nazionalista sutsuak, besteak karlista porrokatuak, baina bagenekien politika baztertu eta elkarrekin ibiltzen.

Hori bai, batzuetan azaleratu egiten ziren bakoitzaren iritzi eta amorruak. Behin, gure lagun batek familia nazionalista bateko semearekin ezkondu behar zuela-eta, hauxe bota zuen beste batek: nazionalista batekin ezkondu? Nik nahiago dinat Errioxako piper-saltzaile bat senartzat!». Esaldi xeble hori esan zuena... abertzale sutsu eta jakintsu batekin ezkondu zen gerora. Amodioaren bandera indartsua izaki!

Genok ez zuen politika hain gertutik bizi izan. «Guk politika zer zenik ere ez genekien. Herrian mitinak antolatzen ziztuztenean, guretzat festa handia izaten zen, komediantek etortzearen antzeko zerbait, gauza berria. Gu denetara joaten ginen, nazionalista nahiz bestelako. Hori bai, mitinlarien maila ez zen bera izaten. Julenek bazuen aparteko zerbait. Berezko dotorezia zuen, ahotsak ere asko laguntzen zion, eta oso ondo adierazten zituen bere ideiak. Edukatua zen baina, aldi berean, indar handikoa. Gerra lehertzean alde egin zutenetik ez nuen gehiago ikusi, baina beti izan dut gogoan.»

Pedrok ere hiruzpalau alditan entzun omen zion Juleneri. «Olinpia aretoan, berdura plazan... hiru edo lau alditan entzun nituen Juleneren hitzaldiak. Agirre lehendakariarekin aritu zen behin, ez zen edonorekin ibiltzen. Mitinlari ona zen, oso ona, aparta. Talentua zuen, eta itxurak ere asko laguntzen zion. Ahots ederrekoa zen, sutsua, keinuak dotore neurtzen zekiena. Bere buruaren jabe zen, konfiantza eta fede handiz aritzen zen. Goi mailako mitinlaria.»

Miren Baztarrikarena da Juleneri buruz bildu ahal izan dudan hirugarren lekukotasuna. Bereak izan dira laudoriorik handienak. «Juleneren ahizpa Josebe lagun mina nuen, eta senide denak ezagutzen nituen. Juleneri buruz zer esan? Emakume harrigarria zen. Euskal Herri osoa konkistatu zuen. Neska zoragarria zen: altua, liraina, ahots bereziaren jabe, fintasuna eta indarra batera zituen. Ezin ederragoa. Guk Greta Garbo ezagutzen genuen, zinearen bitartez. Guretzat haren



Geno Aldalur Juleneren laguna izan zen. Haren mitinen lekukotasuna eman dezakeen bakarretarikoa da

parekoa zen Julene. Haren begiak! Haren nortasuna! Denak txoratuta egoten ginen. Kazetariak ere sorginduta zeuzkan, liluratuta. Beste emakume mitinlari bat ere ezagutu nuen, Polixene Trabudua. Hura ere oso zen ona. Bizkaieraz egiten zuen, baina garbi. Polixinek eskola gehiago

zuen, baina Julene ez zen atzean geratzen. Guk ez dugu halakorik ezagutu.» Mirenek hiruzpalau alditan aipatu zidan Julenek denak konkistatzen zituela. Hortik atera nuen lantxo honen izenburua: Julene Urzelai, mitinlari konkistatzailea.



Azkoitian, lagun baten ezkondu aurreko agurrean. Zutik, ezkerretik lehena, Julene. Beste muturrean, makurturik, Geno Aldalur



Julene Parisen

Gerra, ihesa, erbestea

GERNIKAKO HONDAKINEN ARTEAN

Gerra lehertu zenean, ordura arteko ekin-tzak bere hartan utzi eta beste lehentasun batzuei heldu behar izan zieten, osasun arloari bereziki. «Euzko Geixozain Bazpatzea» izeneko erakundeak lan handia egin zuen. Mediku, botikari, erizain, odontologo, praktikante eta beste zenbait alorretako beharginek osatzen zuten. Julenek ere beste zeregin batzuetan murgildu behar izan zuen. Larrialdi zerbitzuak antolatu zituzten, frontean, ospitaleetan eta erretagoardian. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Zuzendaritza Gerra Departamendura pasatu zen. Julenek gogor ekin

zion lanari, arropak prestatzen: trajeak, berokiak, polainak, buzoak, mantak... Ondoren, jendea Gipuzkoatik ihes egiten hasi zenean, jan-edana, ezkutalekuak, lotarako koltxoiak eta kontsolamendu apur bat eskaintzea izan zuten lehentasun. Halako batean, irailaren 16an, beraiek ere Azkoititik ihes egin beharra izan zuten. Lekeitiora jo zuten denek, gurasoek eta senide guztiek, baina ez zuten han asko iraun, Francoren tropak gainean baitziren. Orduan Busturiara joan ziren, eta handik Axpera, Axpetik Gernikara. Eta Gernikan... bonbardaketak harrapatu zituen. Babestu zituen aterpea bonbek txikitu zuten eta barnean harrapaturik geratu ziren. Zorionez, surik ez zen izan.

Babes-aterpearen hondakinen artean egon ziren, otoitzari emanak, laurak eta hogeialdera bonbardaketa hasi zenetik zortzietan atera zituzten arte. Julene nabarmen markatu zuen egun hartan bizi izandako infernuak.

EAJk atera zuen Julene Euskal Herri-tik. Heriotza zigorra ezarria zioten eta Azkoitian mezak ere eman zituzten haren arimaren alde, fusilatu zutelakoan. Parisera eraman zuten. Han ezagutu zuen Frantzisko Zamakona, gerora senar izango zuena. Zamakona bilbotarra zen, familia nazionalista ezagun bateko semea. «La Aurora» aseguru etxean egiten zuen lan eta, etxe horrek Parisen ere bulego bat bazuen, han eman zioten lana.

Gerrari iheska iritsitako jendea bidaltzen zion Eusko Jaurlaritzak, eta Zamakonak ahal zuen moduan laguntzen zien. Gozotasunez esandako hitzek ez zuten goserik kentzen, baina barnea lasaitu bai. Denbora asko baino lehen erne zen amodioa Frantzisko eta Juleneren artean, baina denbora asko pasatu zen ezkondu ziren arte.



Parisen, Eresoinka taldeko lagunekin



Eresoinkako kideekin jolasean



Eresoinka taldean dantzan, saskia buruan daramala



La Rosere-ko ospitalean, erbestean



Euskal erbesteratuak Parisen

Venezuelara sartu zeneko pasaportearen argazkia. Nabaria da European zehar eginiko bidaiak Juleneren estetikan utzitako arrastoa



Erbesteko Eusko Jaurlaritzak Eresoinka taldea sortu zuen, Euskal Herria mundu zabalean ezagutzera emateko asmoz. Eresoinkan kantari, dantzari eta musikariak aritzen ziren. Julenek ez zuen kantu, dantza edo musikaarako dohainik. Urzelai-Aramenditarrek trakets xamarrak ziren halako gauzetan. Julenek berak aitortu izan zuenez, «Urzelaitarrenean kardantxi-loek ere ez zuten kantatzen». Nolanahi ere, Eresoinkako artista trebeen artean bazuen zereginik Julenek, halako espiritua eta indarra zuten pertsonak garrantzitsuak ziren garai latz haietan jendearen animoa goian atxikitzeko. Europa zaharreko hainbat herrialdetan barna ibili zen Eresoinka.

Belgikara heldutakoan, artistek bakarrik ez, begi urdin zoragarriak zituen neska dotore batek ere txunditu zuen jendea. Julene Urzelairi moda aldizkari baten



Itsasontzian, atzerrira bidean



1938ko ekainaren 14an Londresko *Daily Herald* egunkariak argitaratutako argazkia. Julene eskuinetik laugarrena da

azalean agertzeko proposamena egin zioten eta, zer deabru!, baietz esan zuen. Ez da anekdota txiki grazioso bat besterik, baina honek ere balio du Julenek jendea xarmatzeko zuen erraztasunaz ohar gaitzen. Beste hainbat anekdota eta pasarte ahanzturak ezabatu zituen. Julenek azken urteetan maiz esan zuenez, «zenbat damutzen naizen gertakari haiek guztiak idatzi ez izanaz!».

VENEZUELARA 1940AN

1940. urteko maiatzean iritsi zen Julene Venezuelara. Gobernuak beso-zabalik hartu zuen, hemendik ihesi joandako guztiak bezala. Ez zituzten etorkin gisa hartzen, errefuxiatuak ziren Venezuelako gobernuarentzat. Urte bereko urriaren 12.ean ezkondu zen Julene Parisen ezagutu zuen gazte prestu harekin, Frantzisko Zamakonarekin, Caracasko Altagracia elizan. 1941eko abuztuaren 2an izan zuten lehen haurra, Gentzane. Zazpi urte geroago jaio zen Mikel. Biak Caracasen bizi dira gaur egun ere.



La Guaira portura heldu zirenean, 1940ko maiatzean

Gentzane bera izan da Julene Urzelai bidegile paregabe honi buruzko lantxo hau egiteko izan dudan berri-emailerik onena. Telefonoz izandako solasaldi luze-etan, behin baino gehiagotan sumatu dut mingainari hozkaka, ama sobera laudatu nahi ez eta. «Emakume aparta zen, baina hori ez dezazula idatz», esan zidan. Nola ez dut ba idatziko! Hurbiltasunetik eginiko testigantzak dira baliagarrienak,



Julene eta Frantzisko Zamakonaren eztei eguneko argazkia, 1940ko urrian



Caracasko Euskal Etxearen bigarren egoitzaren inaugurazioa (1950).
Erdian, Jose Antonio Agirre lehendakaria meza entzuten



Caracasko Zumaya hotolean



Carakasko 2. Euzko Etxearen inaugurazioan

eta miresmenetik eginak izateak ez die balio apurrik ere kentzen. Barkadazu, Gentzane.

1950. urtean ireki zuten Caracasko lehen Euskal Etxea. Hura zuten bigarren etxea Zamakona-Urzelaitarrek, baita beste hainbat euskaldunek ere. Horregatik dago hainbeste euskaldun euskaldunekin ezkondata, han sortutako ezaupideagatik. Gentzaneke ere euskalduna du senarra, Iñaki Aretxabaleta. Iñakiren aita Luzio

izan zen Eusko Jaurlaritzaren Venezuelako ordezkaria.

Alabak kontu asko entzun izan dio Juleneri. Idatzi ez bazituen ere, maiz aipatzen zituen. «Gure ama 19 urterako hasi zen mitinlari. Hauteskundeetan parte hartzen zuten, emakumeen errolda egin eta baserriz-baserra ibiltzen ziren, boto eske. Caracasen haren mitinak entzundako jendearekin askotan egin izan dut topo. Ahots ederra zuela zioten, presentzia dotorea, aparteko xarma. Jendea erruz biltzen omen zuen. Nik ez nuen mitinlari ezagutu, jakina, baina dohain horiek bazituen. Nortasun handiko emakumea zen, zinez. Askok irakurtzen zuen, jantzia zen, beti zuen gauza interesgarriren bat esateko.»

RADIO EUZKADIKO ESATARIA

Caracasen luzaroan aritu izan zen Julene irratiari. Radio Euskadik arazoak izaten zituen programazioa osatzeko, astegunez bereziki. Julene izaten zen hutsune hori betetzen zuten esatarietako bat. Mitinetan bezala, irrati ere hizkuntza bakarra erabili izan zuen, euskara.



Berriz sorterrira

Radio Euzkadiko kolaboratzaileen arteko
bazkaria

Julene urtebeteren buruan itzultzeko jasmotan joan zen Venezuelara. Ez zuen uste, ezin zezakeen pentsa, gerak hiru urte eta ondorengo diktadurak 40 iraungo zuenik. 1950. urtean itzuli zen Euskal Herrira. Ez zen erraza izan, Francoren errejimenak bisa agiria eskatzen zuen eta denei ez zieten erraztasunik ematen. Poliziarekin eztabaida bat izan zuen. Begirunerik gabe hitz egin zioten, eta Julenek bi eta bi zenbat diren erakutsi zien, ez zen isilik geratu. Bazekien bere burua babesten, errespetarazten. Seme-alabak ere bidaia hartan ziren. Gentzane aurrez ere izana zen Euskal Herrian, 5 urte zituela ekarri zuten. Izeba serora batekin Zeanu-

riko eskola batean egon zen bi urtez, eta maiz eramaten zuten Bilbora eta Azkoitira. Amaren sorlekuan gozatzen zuen gehien.

Erbesteratu behar izan zuenez geroztik, lau aldiz izan zen Julene Azkoitian, azken aldiz 1976. urtean. Senarrak eta seme-alabek ez ezik, Caracasen bizi ziren beste hiru senideek lagundu zioten: Josebek, Jose Leonek eta Iñakik. Emili, gazteena, Argentinan bizi zen, eta hark ere egin zuen sorlekurako bidaia. Senide denak elkartu ziren, amama Josefaren magal gozoan. Frantzisko Zamakona, Juleneren senarra, Venezuelara itzuli eta egun gutxira hil zen, biriketako minbiziak menpean hartuta. Bilbo azken aldiz ikusteko ametsa



Garaikoetxea lehendakariarekin Euskal Herrian

egia bihurtuta zendu zen. Julene ere ez zen gehiago itzuli Euskal Herrira. Nolanahi ere, Venezuelako euskaldunei astero hitz egiten jarraitu zuen, beti euskaraz. Osasun ahul samarra izan zuen. Gernikako bonbardaketan bizi izandakoari egozten zion ahultasun hori. 1983ko ekainaren 22an hil zen Julene Urzelai, euskal konzientzien ernarazlea, Azkoitiko mitinlari konkistatzailea.



Loiolan, senitartekoekin

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagarik,
eskerrak eman nahi dizkie:

- Zamakona-Urzelai familiari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18-pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 978-84-457-2792-8 (Lan osoarena)
978-84-457-2796-6

L.G.: VI-446/08

BIDCGILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco